



Tolosako Jesusen Alaben elizak 100 urte bete ditu



LEIRE MONTES

MEZA ▶ «Herritar guztientzako meza bereziarekin» ospatuko dute gaur urtemuga

SORRERA ▶ 1905eko maiatzaren 30ean zabaldu zuten; Kandida Maria sortzailea dute gogoan ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

Bai Euskarari taldearen bilera deia

Asteartean izango da Zizurkilen TEPEren 2. markoa eratzeko ▶ 3

ALEGIA ▶

Ondarroako koralaren emanaldia elizan

Unanue Kamara
Koralak 19:45ean
abestuko du ▶ 5

ARESO ▶

Hainbat ordenantza onartu ditu Udalak

Ezinduen txartelerako arauak eta komunalen erabilpena arautzeko ▶ 7



Futbolean San Inazion

IBARRA ▶ Atzo hasi ziren aurtengo jaiak San Inazio auzoan Tolosa eta Ibarako futbol txapelketarekin —argazkian—. Gaur ere futbola izango da, neskena eta ondoren txapelketako finalak. Bihar amaituko dira auzoko jaiak. INIGO TERRADILLOS ▶ 6

Iraola

Badaukazu zer aukeratu

**Kaleko eta azpiko arropa,
osagarriak, lurrinak...**

Herriko plaza, 5 • ANOETA • Tel.: 943 65 36 76

ELECTRONICA TOLOSA
KONPONKETARAKO ZERBITZU TEKNIKOA
Telebista - bideoa - DVD - pantalla handiak
☎ 943 670 323
lurre, 4 behea 5 • TOLOSA

TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

→ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
→ 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
→ 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

Erdi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoa

**IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:
EKAINAREN 1etik 8ra**

Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64
Fax: 943 65 18 56
idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA

ERLIJIOA ▶

Mende bete sinismen

Jesusen Alaben elizak 100 urte beteko ditu astelehenean; «herriar guztientzako meza bereziarekin» ospatuko dute gaur



San Jose ikastetxeari itsasia dago Jesusen Alaben eliza; gaur meza berezia ospatuko dute bertan. L. MONTES

LEIRE MONTES

Nerabegaroko eta gaztaroko hainbat urte pasatu zituen Kandida Maria Jesusen Alaben kongregazioaren fundatzaileak Tolosan. Esperientzia sakonak bizi izan zituen bertan, eta «Jainkoaren deiak ematen zion segurtasunean, 17 urterekin oso garbi ikusten ez zuen bideari ekin zion». Hala, 1888. urtean, San Jose ikastetxea eraikitzeko lehen urratsak eman zituen Tolosan.

«Sorrera horretan gorabehera ugari pasatu behar izan zituen, baina, pixkanaka-pixkanaka, proposatutako helmugara iritsi zen», azaldu dute Tolosako Jesusen Alabek. 1888an Vega de Sellako kontesaren jauregian ikastetxe berriaren

lehen gelak ireki zituzten. Eta ikasleak ugaritu eta jauregia txiki geratu zitzaizenean, «inguruko lursailean ikastetxe berri ba eraikitzen ausartu zen. San Frantzisko kalera zuen aurrealdea, tolosar askorentzat betiko ikastetxea izan dena».

Era guztietako zailtasunei aurre egin behar izan zien, «baina Kandida Mariaren adorea, bere etorkizun-zenak eta, batez ere, Tolosak zeukan kristau heziketaren beharrak eta Jainkoarenganako zuen konfiantzak aurrera jarraitzen lagundu zioten». Eta jarraitu zuen lanean.

1899an eliza eraikitzea erabaki zuen, ikastetxeari erantsia, eta San Frantzisko aldera. «Elizaren planoak iltzatu zituzten, eta honek Tolosako eta inguruko baserrien eta herrien

elkartasuna eta laguntza piztu zituen. Laster iritsi ziren limosnak, harriak, egurra... lekaimean gertutasunari era berean erantzun nahian». Laguntza horien artean Eduardo Mokoroarena aipatu dute Jesusen Alabek: «Herriko musikari ospetsuak elizaren inaugurazio egunerako Meza konposatu zuen, eta emanaldia zuzendu. Ilusio handiz egindako lana opari bihurtu zen». 1905eko maiatzaren 30ean zabaldu zituzten ateak Jesusen Alaben elizak.

«Kandida Mariaren nahia zen nahiz ikastetxea nahiz eliza herriar guztiei irekita egotea, kristautasunaren iturri eta fede-dea bizitzeko lagungarri. Urte asko igaro dira, ohitura asko aldatu dira; hala eta guztiz ere, eliza herriaren beharrei irekita

KRONOLOGIA ▶



Elizan, antzina. 'ARGAZKIAK TOLOSA'

1888. Urriaren 12an zabaldu zuten San Jose ikastetxea.

1905. Maiatzaren 30an inauguratu zuen Jesusen Alaben eliza.

1912. Jesusen Alaben kongregazioko nobiziatua Tolosan jarri zuten.

1988. Ikastetxearen mendeurrena ospatu zuten, urriaren 12an. Ikastetxe berria inauguratu zuten: kanpoko egitura mantendu zuten, baina zenbait gela berri ireki zituzten.

1996. Ama Kandida eta Maria Antonia Bandres beatifikatu zituzten, maiatzaren 12an. Eta ekainaren 23an Maria Antonia Bandres herriko alaba kultun izendatu zuen Tolosako Udalak.

dago». Elizkizunak, erretiro egunak eta bestelakoak sarritan egiten dira bertan. Gainera, «elizaren baldintza akustikoei esker», hainbat entsegu eta kontzertu ere izaten dira.

«Urte asko igaro dira, eta hauekin batera Jesusen Alaben hainbat belaunaldi, ikasle, irakasle, familia... gaur arte iritsi den kate luzea. Mendeurrena ospatzen dugun une honean Kandida Maria gogoan dugu, bere apaltasunean eta Jainkoarengan konfiantza osoa jarritz, ekingiza handiak egiten jakin zuena». Elizaren 100 urteak astelehenean beteko diren arren, gaur meza berezia ospatuko dute bertan, 19:00etan. «Ikasle eta irakasle ohi, senitarteko eta herriar guztiak» gonbidatu dituzte «ospakizun berezi» horretara.

OHARRA ▶

Argindarra moztuko dute Korreo kalean

Tolargi azaldu duenez, etzi, astelehena, argindarra moztuko dute Korreo kalean, «bezeroei eskaintzen diegun zerbitzua hobetzeko». Zehazki, 52, 54, 56, 58, 60, 62, 64 eta 66 zenbakietan moztuko dute argindarra, 08:20etik 12:30era.

HIRUGARREN ADINA ▶

Imerso-en bidaietako eskaerak, prest

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako departamenduak Imerso-ren bidaietan parte hartzeko eskaerak jasotzeko moduan dituela jakinarazi du. Era berean, eskaerak Madrilerara bidaltzeko epea ekainaren 30an bukatuko dela gogoratu du.

PILOTA ▶

Pilota jaialdi berezia antolatu du Gure Txokoak

Gure Txokoak elkarrekin, bere 75. urteurrenaren harira, pilota jaialdi berezia antolatu du asteazkenean, 19:00etan, Beotibarren. *Frontoitik eskolara, Tolosatik Saharara* lelopean, pilotariak, jende ospetsua, kirolari ohiak eta musikariak elkartuko dituzte jaialdian. Lehen partidariak, palaz, gomako pilotarekin, Periko Alonso-Santi Bakero eta Txato Nuñez-Kuko Zigan da lehiatuko dira. Bigarrenaren, buruz buru, lau t'erdian, Beloso eta Renobales pilotariak. Eta hirugarrenean, palaz, gomako pilotarekin, Joxean Tolosa-Inaxio Tolosa eta Euskitze-Garikoitz Mendizabal, 5 euro balio du sarrerak, eta jasotako dirua Saharako errefuxiatuentzat izango da.

hitza **txokoa** ^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAREN laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

EUSKARA ▶



Bai Euskarari Akordioa Tolosaldean taldeko kideak, herenegun, bilerarako deia egiteko agerraldian. HITZA

Bai Euskarari Akordioa Tolosaldean taldeak bilera irekiera deitu du

Datorren asteartean izango da, Zizurkilen; TEPEren lehen plan markoa beteta, bigarrenari ekin behar zaiola esan du

IRATXE ETXEBESTE

«Euskararen normalizazio prozesuak une erabakigarriak bizi ditu Tolosaldean eta Euskal Herrian. Eskualdean baldintza egokiak daude euskararen normalizazioaren aukera irabazteko, eta horren bila goaz». Horixe adierazi zuten herenegun Bai Euskarari Akordioa Tolosaldean taldeko kideek prentsaren aurrean egin zuten agerraldian.

Talde horrek Tolosaldeko Euskararen Plan Estrategikoa (TEPE) jarri zuen abian 2000. urtean, eta plan horrek «euskararen aldeko olatu handia altxarazi» duela diote sustatzaileek: «Emaitza zehatzak ere izan ditu: TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria; 200dik gora dira euskararen aldeko konpromisoak hartu dituzten gizarte eragileak eta 100dik gora Bai Euskarari Ziurtagiria lortu dutenak». Horrez gain, euskalgintzaren, jendarteko eragileen eta Gizarte Erakundearen Kontseiluaren artean kontzertazio soziala, eta TEPE eta udalak elkarrekin lanean jarritz eta zenbait udalengan TEPE eta EBPN planak uzartuz kontzertazio soziala eta instituzionala lortu dela ere azpimarratu du Bai Euskarari Akordioa Tolosaldean taldeak. «Elkar hartze zabal horrek euskararen aldeko bultzada

berri horri bidea eta ahalbidea ematen dizkio helburu argi baten bila joateko».

TEPEren lehen markoa 2000-2004 urteetan bete dela, eta bigarrenari ekin behar zaiola irizten diote taldeko kideek. 2005-2008 artekoa. «Hasierako olatu handi hori denborarekin baretzen joan da», izan ere, eta, egun, euskararen normalizazioaren aldeko bultzada «nolabaiteko motelaldian» sartuta dago eskualdean.

«Egoera horren aurrean gogoeta egin dugu zer gertatu den aztertze eta aurrera begira euskararen normalizazioa nola indarberritu dezakegun ikusteko. Gogoeta hori konpartitu nahi genuke TEPEren hasieran izan ginen guztion artean, ekarpenak jaso eta aberasteko, diagnostiko adostua ze-

hazteko eta proposamen bateratua egitera iristeko», diote. Horretarako indarra bildu behar da eta bilera zabal batera dei egin dute, «denon artean, euskarak bizi duen aukera galdu gabe baliatu ahal izan dezagun eskualde osoan».

Bilera, datorren asteartean

Hilaren 31n izango da batzar irekia, 19:30ean, Zizurkilen, Joxe Arregi plazan dagoen Kultur Etxean. Zeren eta «euskaltzaleok jakin badakigu konpromisoek bakarrik ekarriko dutela euskararen normalizazioa eskualdera eta Euskal Herriera: norbanakoen eta jendarteko eragileen konpromisoak eta konpromiso politikoak ezinbestekoak dira Tolosaldea bizigune euskalduna izateko».

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Autokarabana. Busner (Fiat Bucato) markako 6 plazako autokarabana salgai. 23.000 kilometro. Deitu telefono zenbaki honetara: 675 717 913.

LANA
Zerbitzaria. Tolosaldean, zerbitzaria behar da asteburueterako. Deitu 677 32 99 34 telefono zenbakira.

Tabernarako. Neska euskalduna behar da Tolosaldeko taberna batean 4 orduz lan egiteko. Esperientzia duena. Deitu telefono zenbaki honetara: 675 701 178.

GALDUTAKOAK
Txakurra. Spaniel arrazako txakur zuri-marroia galdu da Alegia, Alizo eta Amezketa inguruetan. Deitu telefono zenbaki hauetara: 609 15 48 53 edo 619 922 735.

EMAKUMEEN MUNDU MARTXA ▶



Tolosaldean, Martxarekin bat

L. Montes ▶ Orain lau egun sartu zen Euskal Herrian Emakumeen Mundu Martxa, 2005 arrazoi martxan jartzeko lelopean. Eta Tolosaldea ere izan da aldarrikapen horren lekuko. Herenegun arratsaldean, hain zuzen ere, Bentaunditik sartu eta Donostiara-ko bidean, autokarabana egin zuten emakumeek Tolosan —argazkian—. Bada Euskal Herriatik irten eta Frantziari pasatu zioten lekuko atzo hainbat emakume: Humanitaterako Emakumeon Mundu Karta, eta herriz herri handitzen doan manta bat. Urriaren 17an amaituko da Mundu Martxa, Burkina Fason. J. SAIZAR

TOLOSA ▶ HEZKUNTZA



Bertsolari gazteen lehen saioa

I. Etxebeste ▶ Herenegun egin zuten Leidor aretoan *Ahokotasuna eta bertsolaritza* proiektuari amaiera modukoa emateko jaialdiaren lehen saioa Hirukide, Samaniego eta Laskorain ikastetxe-etako ikasleek bertara bildutako jendetzaren aurrean —argazkian—. Lehen Hezkuntzako 10 eta 12 urte bitarteko ikasleak bikain aritu ziren, eta atzo egitekoa zuten bigarren eta azken saioa gainerakoek. Orotara 450 neska-mutil dira Bixente Gorostidiren gidaritzapean ikasturte osoan bertsolaritzaren baliabi-deak lantzen aritutakoak; eta, ezin, guztiek batera egin. L. MONTES

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Orain hamar urte ireki zen A-15 autobia. Izan al du eraginik zure eguneroko bizitzan? Tolosaldearentzat eta Leizaldearentzat onuragarri ala kaltegarri izan da? **Eztabaida.** Zer iruditzen herri kontsulta erabakiak hartzeko modu gisa?

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

Ikuskizun berean dantza, musika, hitza eta irudia bat eginik

Kukai eta Ttantakaren 'OteHitzari biraka' emanaldiaz gozatu ahalko da gaur gauean Intxaur frontoian

ERREDAKZIOA

Maiatza Saltsan kultur egitaraua bere azken emanaldira iritsi da. Hilabete guztian zehar ekitaldi ugari izan ondoren, gaur gauean Kukai dantza taldearen *OteHitzari biraka* emanaldia izango da Intxaur pilotalekuan, 22:30etik aurrera. Helduak 5 euro eta 14 urte bitarteko haurrek 3 euro ordaindu beharko dituzte.

Tantakak eta Kukaik koprodukzioan egiten duten bigarren lana da eta Jorge Oteiza du oinarri. «Oteitzaren izena aipatzea bada osagarri nahiko indartsua. Orion jaiotako artista ez da inoiz oharkabean igaro, eta azken-azkenera arte eman zuen zeresan. Eskulturan, poesian, filologian, antropologian... bizitzan. Oteitzak bizitzaren aurrean jorratu zituen ikuspuntuak eta azalduko iritziak erakusten ditu ikuskizun honek», azaltzen dute obraren egileek.

Nolanahi ere, Oteiza bera ez da ikuskizunaren osagarri bakarra. Bere obra sakon aztertu ondoren Mireia Gabilondok egin du ikuskizunaren gidioa eta zuzendaritza, Jon Mayak sortu du koreografia, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal eta Rafa Rueda arduratu dira musikaz eta kolaborazio zerrenda luzea bildu da proiektuak: Mikel Laboa, Iñaki Salvador, Pello Zabala, Joxe Angel Iriagaray, Xabier Lete, Claude Iruretagoyena... «Dantza, musika, poesia, bideoa... izango ditu ikuskizunak. Baina, batez ere, Jorge Oteitzaren hitzak eta es-



Bi dantzari, Oteitzaren irudia atzean, emanaldiaren une batean. HITZA

pirituak», azaltzen dute lanaren produkzioa bideratu dutenek.

Oteitzaren pentsamendua

Mireia Gabilondok hilabeteetako lan sakona egin du Jorge Oteitzaren obra aztertzen. *Quosque Tandem, Existe Dios al Noroeste, Itziar Elegia...* hari buruzko bildumak, hark egin-dako elkarrizketak, dokumentalak, bere erakusketak, bere etxea... Jorge Oteitzaren arras-

toa ageri zen leku eta lan guztiak arakatu ditu.

Oteitzaren pentsamendua ulertu, landu eta horretan sakondu du. Horretarako, gainera, Oteiza beraren gertuko lagunak ere adiskide izan ditu.

Azterketa sakon horren ondorioz, Mireia Gabilondok aukeratu egin behar izan du, ezinezkoa izango litzatekeelako Oteizak landutako gai guztiak ikuskizun bakar batean jasotzea. Hala, hitzaren beharra,

hautzaroa, artearen alboratzea, hezkuntza sistema aldatzeko beharra, isiltasuna, Vitoriano Gandiagarekin izandako harremana, bere emazte Itziarren heriotzak eragindako bakardadea eta heriotza barneratu ditu gidoian.

Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabalek eta Rafa Ruedak norberak bere alorrean ibilbide oparoak egin dituzte eta elkarrekin *Zaharregia, Txikiegia agian* emanaldia amaituta bete-betean sartu ziren ikuskizunaren musika egiteko lanean. Hasiara hasieratik sonortate ezberdin baten bila jardun dira, eta horixe lortu dute. Bidai handia egiten duen musika sortu dute, kolore oso ezberdinekoa eta ikuskizunaren edukia atmosfera berezi batean kokatzen duena.

Koreografia

Euskal dantza tradizionalak gertakizunak, sentimendurik, historiak kontatzeko balio duela frogatzea zen Jon Mayaren eta Kukai Dantza Konpainiaren helburua 1937. gogoaren *bidez dorretatik* ikuskizunean. Euskal dantza tradizionalak baduela arte eszeniko gisa ulertzeko adina aberastasun eta gaitasun argi geratu zen aurreko ikuskizun horretan.

Euskal dantza tradizionala ikuspegi berri baten aurrean jartzen da ikuskizun honetan. Ikuskizuneko pasarte ugari kontatzen dira dantzaren bidez, baina beti ere leku berri eta berezi batetik dantzatuta. Ohiko hainbat dantza tradizionalen inguruko moldaketak eta urrats zein mugimendu tradizionaletan oinarritutako koreografia berriak ikusten dira.

Hain zuzen, ikusmolde berri horren adibide garbiak dira dantzekin batera ikuskizunean ageri diren beste elementuak. Musika, jantziak... Abilezia eta ikusgarritasun handiko uneak ageri dira, baina baita ere eta gozoak eta tristeak. Indarra eta sentsibilitatea bat eginik dagoz, euskal dantza modu ezberdin batez ulertzeko balio izango duen ikuskizun honetan.

VILLABONA ▶

Lehiaketa jaietako egitarauaren azala aukeratzeko

Uztailan ospatzen diren Santio jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa martxan jarri du Udalak. Villabonako edozeinek hartu dezake parte eta edozein motatako lanak aurkeztu ditzake: pintura, argazkia, collagea... Gaia Santio jaiak izango da eta aurkezten diren lanetan «Villabona - Santio Jaiak - Uztaila 2005» testua azalduko da. Gutxieneko formatua 18 x 24 zentimetrokoa izango da. Lanak inoiz argitaratugabeak izan behar dute eta irabazleak 300 eurotako saria jasoko du. Lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 24a izango da.

VILLABONA ▶

Urteurrenaren ekitaldiak Onddo Gaztetxean

Villabonako Onddo Gaztetxearen urteurrenaren ekitaldiak izango dira asteburuan. Gaurko ekitaldiak 11:00etan hasiko dira Errebote plazan buruhandiek, Loatzo musika eskolakoek alaiturik; 15:30ean, umeentzako olinpiadak izango dira Errebote plazan; 18:00etan tortila lehiaketa herrikoia eta 22:30ean kontzertua, Lekeitioko hiru talderekin. Bihar kantaldia izango da, 20:00etan, Jimmy Muellesekin. Astelehenean eta asteartean izango diren ekitaldiekin amaituko da urteurrenaren ospakizuna. Astelehenean, esaterako, Pasaiaiko superportuari buruzko bideoa emango dute, 19:00etan. Ordu berean eta asteartean, *Pasaiaiko enboskada* gaitzat hartuta hitzaldia emango dute Gaztetxean.

ZIZURKIL ▶

Bake epailea eta ordezkoa betetzeko deialdia

Zizurkilgo bake epaile titularren eta ordezkoren hutsuneak betetzearren, deialdi publikoa egin du Udalak, postu honetan interesaturik dauden edozeinek bere kandidatek aurkez dezaten. Epea ekainaren 6an amaitzen da. Informazio gehiago nahi duenak udal bulegoetara jo dezake edo 943 69 10 12 telefonora deitu.

OTEHITZARI BIRAKA

Kukai Dantza Taldea
2005-05-28
22.30etan
Zizurkilgo Intxaur Frontoian

ARAMBURU

Salgai (Tolosa), Pisua igogailuarekin Larramendi kalean, 112 m², Bista zoragarria.

Salgai (Tolosa), Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate Ibilokian

Alokatzeko (Alegia), 3 logelako pisua Altzariek.

Alokatzeko (Tolosa), Lokal komertziala Errementari kalean.

Alokatzeko (Tolosa), Garajea Pedro de Tolosa kalean eta Araba Etorbidean.

Alokatzeko (Ibarra), Garajea Euskal Herria kalean.

Alokatzeko (Salou), 4 edo 6 laguntzako 2 logelako apartamentua. Iganlekuekin.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

MUSIKA ▶

Loatzo musika eskolako matrikulazioak

Loatzo musika eskolako 2005/06 urteko matrikulazio epea irekiko du etzi, astelehena eskualdeko hainbat herritan. Anoetan Ikastolan; zizurkilen Atxulondo kultur etxean; Ibarra eta Villabonan Kultur Etxean eta Adun, Larraulen, Altzon, Iruran eta Alegian udaletxean eman behar da izena. 10:00etatik 12:00etara, ekainaren 3a bitarte.

ALEGIA ▶

Partida gehiago Xantoxen txapelketan

Xantoxen omenez antolatutako txapelketan norgehiagoka gehiago daude asteburu honetan Alegian: 15:00etan, Txurtzil Ospelaren aurka (arbitroak Aston Bila); 16:00etan, Aston Bila-Budweiser (arbitroak Uau Roberto); 17:00etan Etxale Kuyons-Kokox klan (arbitroak Uau Roberto); eta 18:00etan Uau Roberto-L (arbitro lanetan Aston Bila).



Aurreko asteburuko partida. N. L.

IBARRA ▶

Ekainaren 5ean Gorritira irteera antolatu dute

Urtero legez, Gorritira mendi irteera antolatu du Haitzetan-Raju mendi taldeak. Ekainaren 5ean irtengo dira 9:00etan Ibarra plazaetik, eta lau orduko ibilaldia egin ondoren Gorritira iritsiko dira. Bertan bazkari ederra izango dute prest, zikiroa hain zuzen. Ondoren, jokoak egingo dituzte eta arratsalde partean itzuliko dira Ibarra bueltan.

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri. **Zenbakia.** 235.a. **Orrialdeak.** 18. **Tirada.** 2.500 ale. **Gai nagusiak.** Ikasleen arteko bertso eta ipuin lehiaketa, nazioarteko ingurumen eguna, Zizurkilgo artistak. **Elkarrizketa.** Dani Arizala (*Beste Gu* telebista saioaren aurkezlea). **Argitaratzailea.** Manuel Laramendi Kultur Bazkuna. ▶ Dr. Huizi kalea, 15 1-esk. (Andoain) ▶ 943 300 732 ▶ aiurri@topagunea.com ▶ www.aiurri.com

ALEGIA ▶ KULTURA

Ondarroako Unanue Kamara koralarren kantu emanaldia

Gaur 19:45ean Joan Bataiatzailearen elizan eskainiko dute kontzertua 20 abeslariz osatutako abesbatzak

NOELIA LATABURU

Gaur 19:45etik aurrera Ondarroako Unanue Kamara Koralarren kantu emanaldia izango da entzungai Alegiako Joan Bataiatzailearen elizan.

Hogei ahots zuriz osatutako abesbatza ondarruarrak hamaika abestiz osatutako ikuskizuna aurkeztuko du Alegian. Abestuko dituzten kantuen artean euskal musika herrikoian oinarritutako harmonizazio ugari topatuko dituzte entzuleek, Javi Busto Hondarribiako herritarraren *Kaia barrenean* edo *Maritxu nora zoaz*, besteak beste. Halaber, euskal egile gazteek ahots zurien abesbatzetarako egindako obrak ere entzun ahal izango dira, David Azurzaren *Izar dantza* eta *Hai-zea*, Junkal Guerrerok harmo-



Ondarroako Unanue Kamara Koraleko partaideak. HITZA

nizatu duen *Belatzarena* bai eta Eva Ugaldere *Uraren besotik*. Gotzon Aulestiaren omenez Ondarroan egindako ekitaldian bere obra *Bat-bakarra* estrainatu zuten iaz, XVIII. P.M. Unanue Musikaldiaren barruan, eta kantu hau eskainiko


dute, hain zuzen. Bukatzeko, Xabier Sarasolaren *Pater Noster*, Estesen *Kiryé* eta *Uytten-boogaarden* emanaldiko kantu sorta eskainiko dute, kontzertua abesti ingeles batekin amaituko dutelarik.

Ondarroako Txintxarri abesbatzak gonbidatuta datoz, duela bi urte hasi baitzen bien arteko hartu-emana, Alegiakoak Ondarroara joan zirenean kontzertu bat eskaintzea. Abesbatza hau 1988. urtean sortu zen, Ezkilantxarri izenpean. Egund Estibalitz Arrizabalagak zuzentzen du 20 abeslariz osatzen den taldea.

Esperientzia handiko korua

Gaztea izanagatik ibilbide luzea du abesbatza honek eta hamaika emanaldi eskaini ditu dagoeneko, esaterako, Haydn-en *Stabat Mater* lana Bilboko Kamara orkestra eta koroarekin 2003an; *Bat-Bakarra* lanaren estrainaldia, 2004ean Ondarroan Gotzon Aulestiaren omenez egindako ekitaldian; *Bidez bide* kantua abestu zuten Bilboko orkestra sinfonikoarekin eta Juanjo Menaren zuzendaritzapean; 2002an *Argiueak* ikuskizuna aurkeztu zuten lehen aldiz Joxe Mari Urteaga idazlearekin batera. Honekin batera euskal lurraldeetatik kanpo ere aritu dira kantuan bost bider.

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi. **Zenbakia.** 214.a. **Orrialdeak.** 24. **Tirada.** 5.000 ale. **Gai nagusia.** kristautasuna gaurko munduan. **Beste gaiak.** Aste Berdea Tolosa eta Anoetan, babarrunaren ereitea. **Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea ▶ Nafarroa 6, behe (Tolosa) ▶ 943 65 50 04 ▶ galtzaundi@galtzaundi.com ▶ www.galtzaundi.com

hilberriak ▶

✠ Jose Maria San Sebastian Izagirre
I. URTEURRENA

Bere emaztea: Mari Karmen Ormazabal; seme-alabak: Maria eta Asier Oiarbide, Patxi eta Nerea Izagirre; anaia: Rikardo; ezkon-arrebak: Maria Jose Salaberria eta Arantxa Ormazabal; osaba-izebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte BIHAR, eguerdiko 12:00etan, San Frantzisko parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

TOLOSAN, 2005eko maiatzaren 28a

✠ Mari Karmen Ezkerra Lizeaga

Herezegun hil zen, Gaztelun, 58 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Bere arimaren zuzendaria: Martin Garmendia; senarra: Miguel Aurkia; seme-alabak: Karmele eta Jokin, Ana eta Joxe Ramon; bilobak: Alazne eta Ugaitz, Gaizka eta Ander; bere ama: Juanita Lizeaga (Antonio Ezkerraren alarguna); ana-arrebak: Leandro, Inaxio eta Irene, Juan Jose (*), Joxe Mari eta Mari Jose, Manuel eta Izaskun, Jabier eta Isabel, Maite eta Joxe Mari; koinatzaileak: Laxaro eta Juanita, Joxemari, Juanito eta Mari Carmen, Felicitas eta Miguel; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte LAUR, 18:00etan, Gazteluko Andre Mariaren Jasokunde elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hilbidea: Arritegi etxea. GAZTELUN, 2005eko maiatzaren 28a

eskela hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

✠ Mari Karmen Ezkerra Lizeaga
-Goian bego-

Joan zera, baina gure artean izango zaitugu beti

Gazteluko Udala

Hileta elizkizuna gaur, larunbata, 18:00etan, Andra Mari Jasokunde elizan egingo da.

GAZTELUN, 2005eko maiatzaren 28a

IBARRA ▶

Gipuzkoako Kopako finala jokatu du Lauburuk

Aloña Mendi oñatiarren aurka lehiatuko dira gaur ibartarrak

I.TERRADILLOS

Senior eta nazional jubentzietatik emaitza oso desberdiekin amaitu zen aurtengo denboraldia. Probintzia mailako jubentzietatik, ordea, oraindik ere jarraitzen dute, izan ere Gipuzkoako Kopako finalera iritsi dira eta gaur jokatu du gaur jokatu dute partida. Donostiako Carmelo Baldan izango da finala 13:00etan eta Oñatiko Aloña Mendiren aurka jokatu dute.

Denboraldi bikaina ari dira burutzen, eta oñatiarrei aurre egiteko prest ekingo diote gaurko finalari.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozk dispens.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egotiza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

GIZARTEA ▶

Saharentzat bakea eta askatasuna aldarrikatuz

Pasa den asteburuan egin zen Saharako Lotsaren Harresian Bakearen Bigarren Martxa; Leaburuko Gregorio Eizagirrek han jazotakoak gertutik bizi ahal izan ditu

IÑIGO TERRADILLOS

30 urte baino gehiago bete dira Marokok Sahara okupatu eta sahararrek bere lurretatik at egun dauden errefuxiatuen kanpamentuetara alde egin beharra izan zutela. 2.720 kilometroko luzera duen eta 160.000 soldaduk babesturiko harresiak banatzen dituzte euren etxeetatik. Marokoarren defentsa harresi honi lotsaren harresia hots egiten zaio.

Harresi honetara, hain zuzen, egin zuten pasa den asteburuan Bakearen Bigarren Martxa. Leku desberdinetako jende ugari izan da harresian Saharako herriarentzat bakea eta askatasuna eskatuz, eta hauen artean Euskal Herritik joandakoak ere ikusi ahal izan dira. Bada eskualdetik joandakorik ere, eta horren adibide da, Gregorio Eizagirre leaburuarra.

«Sahara iritsi eta bigarren egunean abiatu ginen harresi-rantza», azaltzen du leaburuarra; «Aldarrikapenerako uneak bizi izan genituen han: sahararrak soinean futbol jantziekin selekzio bat exijituz, NBERen aurkako oihuak, erreferenduma egiteko eskatuz...». Saharako Frente Polisarioko



Ikurrinak zeramatzen euskaldunak ere batu ziren Saharakoei eta beste lurraldeetakoiei. HITZA

idazkari nagusiak, Mohamed Abdelaziz-ek hitz egin zuen, harresitik hurbil zeuden puntu horretan; autodeterminaziorako eta independentziarako Saharako duen eskubidea exijituko dutela adierazi zuen, eta era berean, eskerrak eman zizkien martxan bildu zirenei. Bestalde, izan dituzten ekitaldien artean, Mikel Urdangarin eta Tontxu abeslariaren kontzertua azpimarratu behar da.

Saharatik kanporatuak izan zirela 32 urte igaro berri dira aurreko asteburua; hala ere, beraien lurretara bueltatuko direnaren esperantza eta indarra mantenduko dute.



Mohamed Abdelaziz, Frente Polisarioko idazkari nagusia. HITZA

IBARRA ▶ JAIK



Haur jaialdia eta futbola gaur San Inazio jaietako egitarauan

I.Terradillos ▶ Atzo hasi ziren Ibarako San Inazio auzoko udaberriko jaiak. Tolosako eta Ibarako arteko futbol txapelketa izan zen. Gaur, besteak beste, 16:00etan nesken arteko txapelketa izango da eta ondoren gaurkoen eta atzoko finalak jokatu dira. I.T.

LEABURU-TXARAMA ▶ GIZARTEA



Zaborrontzi berriak erabiltzen has daitezke Txaraman

I.Terradillos ▶ Atzotik aurrera Txaraman erabiltzen has daitezke autobus geltokiaren ondoan jarri dituzten zaborrontziak. Zabor ugari kanpoan geratzen zela, eta hori ekiditeko asmoz jarri dituztela berriak azaldu zuen Amalia Adurriaga zinegotziak. I.T.

ARESO ▶ UDALA

Hainbat ordenantza onartuta, sarri irekiko da alegazio epea

Ezinduen txartelak eskuratu ahal izateko arauak eta komunalen erabilpenerako baldintzak jaso dituzte horietan

JAIONE ASTIBIA

Atzo eguerdiartean egin zuten Aresoko udaletxean udalbatzarra, biharamonean beintekoak bilduak izaki, eta puntu saila izan zituzten eztabaidagai.

Horien artetik, bi ordenantza lirake nabarmentzekoak, bakoitza hagitz arlo desberdinetakoak izanik ere. Horrela, han azaldu zuten, «ezintasuna duten biztanleentzat», ibilgai-

luak horretarako egokitutako aparkalekuan uzteko beharrezko txartela eskuratu ahal izateko, orain arte nonbait ez zegoen araudi zehatzik, eta hori «zuzentzeko asmoz», hartu dute erabakia, alkatetza duen taldearen aldeko lau bozkek direla medio.

Beste ordenantza, berriz, «komunalaren erabilpenari», zegokion. Han azaldu zuten, herritarrek betiko moduan erabiltzen jarraituko dituzte,

«galekuak, larreak, sutarako egurra...», baina, ziotenez, mendiaren ustiatetako prozeduran Nafarroako Gobernuta «aholkatzen» duten eskakizuna omen da, Udalak herri ondasunen erabileraren araudia izateko eta egin egin dute.

Biek hala bie hasierako onspena eman zieten, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialena argitaratzen denean, helegiteak sartzeko epea irekiko omen da.

LEITZA ▶

Sei hilabete bete berri ditu Astibiai kartzelean

Maiatzaren 16an bete zituen sei hilabete, kartzelan, Igor Astibiai. Egoera hori dela eta, elkarretaratze berezia deitu du Etxerat elkarrekin, igande eguerdirako, plazan. «Preso leitzarraren eta orohar euskal preso politiko guztien askatasuna eskatzeko» egingen omen dute elkarretaratzea, adierazi zuten, *Igor etxera! Euskal presoak etxera!* leloarekin egingen dutena, 12:30ean. Gaztea, Navalcarnero (Espainia) espetxean dago, azaroaz geroztik. Kasua egokitu zitzaion fiskalak, baldintzapeko askatasuna «ukatu» ziolarik, erabaki horri «errekurtsoa jarri ahal» izateko, epea sortu zain omen daude. Bitartean, adierazi dutenez, duela hiru aste-buru, bere senideetako bik ez omen zuten bisitatzerik izan, nahiz eta horie berei, «aurreko aldi batean aitzakiarik ez jarri».

LEITZA ▶

Musika klasikoa entzuteko aukera gaur zinemari

Kultur Asteko egitarauaren baitan, gaur goizean, Erleta eskolako ikasleak eta animatu diren euren gurasoak ere, Guratz mendira joanak izanen dira, Mendibil mendi taldeko kideekin batera, goiz pasa egitera. Horrela, goizean neke piska bat pilatu bada, aukera ezin hobea dago iluntze partean, 20:00-etatik aurrera zinemara joan eta erlaxatzeko. Izan ere, musika klasikoa entzuteko aukera eskura dago: zer gauza hobirik, musika lasaia eta goxoa entzutea baino. Gainera, protagonistetako bat herrikoa izanen da: Ainara Roda. Eta berekin beste hirulau lagun ariko dira, guztiak musikari profesionalak, eta piano handiaz gain, bilontxelo, bibolina, flauta ere joko dituzte. Azkenik, orkestra tiki bat eratu dute eta emanaldi polita prestatu dutela ere adierazi zuten atzokoan.

LEITZA ▶ MUSIKA



Amazabaleko giroa bero, ikasleen kontzertuan

J. Astibia ▶ Kanpoan bero egiten zuten, baina arratsaldean Leitzako Amazabal Institutuko musika ikasleek, beste lau ikastetxetakoekin batera, eskaini zuten kontzertuan ez zen tikiagoa. Erakustaldi bikaina egin zuten hasiera hasieratik: bonboaren hotsera, musikari guztiak euren le-

kuak hartzen joan ziren heinean doinura sartuz, Xuberoako dantzekin eman zuten hasiera. Handik aurrera, estilo guztietako piezak jo zituzten, dantzatu eta kantatu, bertan bildu zen ikus-entzuleen gozamenerako: xirula, bibolina, haizezko tresna ugari, perkusiozkoak ere. Asko. J. ASTIBIA

ARESO ▶ SOKATIRA

320 kilokoan saiatuko da Aresoko taldea

Aste honetan egin dute bilera eta denboraldiarekin «jarraitzea» erabaki dute

J. ASTIBIA

Launakako Euskal Herriko Sokatira Txapelketak geldialdia izan zuen aurreko asteburuan eta orduan horren berri eman genuen moduan, bertan behera utzi zuten, Zamudion, 300 kiloko pisuan jokatzen zuten sariketako finala, jazo zen gertakari latza zela eta. Aste honetan egin dute bilera Aresoko taldekoek eta, animoak oso goian ez omen dauden arren, «aurrera jarraitzea» erabaki dute.

Horrela, bada, gaur bertan dute ekinaldia, Mungiaoko Torre Billela Parkean, 17:00etatik aurrera eta 320 kiloko pi-

suan egingen ere. Aresok bi talde ditu aurkeztuak honerako ere eta beste 14 taldeekin lehiatu beharko du: Gaztediko 3, Goiherriko 4, Nuarberen 2, Mutrikoak beste 2 eta Getxo, Baarzun eta Artzentaleseko talde banarekin.

Edozein moduz, 16 taldeak, bi multzotan banatuko dituzte, zozketaz, Herri Kirol Federazioetik HITZARA igorri duen informazioaren arabera, eta «multzo bakoitzean ligaxka moduko bana» jokatuko omen dute, horrela, bakoitzeko lau hoberenek, biharamonean Abadiñon, Ibilaldien baitan, finala jokatzen aurrera izanen omen dutelarik.

iragarki laburrak ▶

Kutzak eta banketxeak. Lekuak libre. Sartzek laster. Informatu. 943 43 41 27.
Peoiak, igeltseroak, soldadoreak, mantenimendukoak. Sartzek laster. Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria, Antzuola, Zerain,

Mendaro, Villabona. Informatu. 943 43 41 27.
Sukaldeko laguntzaileak, garbitzaileak, sukaldariak, tabernariak. Sartzek laster: ikastebeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informatu. 943 43 41 27

Administrari laguntzaileak. Sartzek laster. Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Sorluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu. 943 43 41 27
Gidariak. Sartzek laster: udalebeak, Eusko Jaurlaritza, Foru

Aldundia. Informatu 943 43 41 27 telefonoan.
Harreragileak, telefonistak. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan. 943 43 41 27
Administrari laguntzaileak.

Liburutegiak, informatika. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan. 943 43 41 27.
Udaltzainak. 25 plaza libre udalekueetan: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Informazioa doan. 943 43 41 27.



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko maiatzaren 28a, larunbata ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zailantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Gynkana plazan 11:00etan, I. Kirol Astean.
Tolosa. Bernardo Bidaiola Txirrita-ri omenaldia egingo diote Uzturren bihar 12:00etan XXIX. urtemugan.
Tolosa. Udal Haur Eskolan matrikula zabalik dago ekainaren 2a bitarte.
Argibideak: Euskara eta Hezkuntza Zerbitzua (plaza Zaharra 6-B, 3. pisua, 3.2.atea) edo 943 69 74 53 edo 943 65 44 66 telefonoetan.
Villabona. Gaztetxearen I. urteurreko ekitaldiak: 11:00etan buruhandiak Loatzo musika eskolakoek alaiturik;

15:30ean umeentzako olinpiadak; 18:00etan tortila lehiaketa herrikoa; 22:30ean Brigada Criminal eta Lekeitioko talde sorpresaren kontzertuak.
Zizurkil. Kukai dantza taldeak *Otehitzari biraka* dantza ikuskizuna eskainiko du Intxaur frontoian 21:30ean.

MUSIKA

Irura. Mission 439 diskotekan, 1. salan Dj Dim-ix, Dj Guim's, Dj Julius eta Dj Rober jazz ariko dira, eta 2. salan Mega radio (Dj Maki, Dj Sergio, Dj Sergi... Dj Julius eta Rober jazz). Zabalik 23:30etik 06:30era.
Tolosa. Tolosako Musika Bandaren kontzertua Berdura plazan 19:30ean.

ZINEMA

Tolosa. *El reino de los cielos* filma emango dute Leidor zineman 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.
Tolosa. Azpiroz. Amaroz 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre Irratia (FM107.5)
10:30-13:00. Hitzak hegan: eztabaida telebistako *reality show*-ez Basetxea Taberna lehiakideekin, lehiaketa, kolaborazileen tartea...
Bihar. Errepikapena ordu berean.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSA ▶ KULTURA



'Euskal aztarna Argentinan' ikusgai asteburuan udaletxean

Erredakzioa ▶ Euskal emigrazioa Argentinan aztertzen duen *Euskal aztarna Argentinan: memoriaren bitartez hezi eta ikasi* erakusketa izango da ikusgai gaur eta bihar Tolosako udaletxeko batzar aretoan 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 22:00etara. 30 pailetan hainbat gai jorratzen ditu: bidaiatzeko tradizioa, emigratioaren kontzeptua, zergatiak, nola gauzatu zen, lehen egunak, lanbideak, bizimodua, ohiturak eta kultura, artistak... Tolosar asko joan ziren Argentinara, tartean euskararen alde lan handia egin zuen Ixaka Lopez-Mendizabal eta haren lekukoa jaso zuen Xabier semea. Argazkian, erakusketa Durangoko elizan. HITZA

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAREN egoitzara; ekarri argazkia



Mila esker Gaizkaren agurrera etorri zineten guztioi.



URTE ASKOAN

Kaixo aitabo ta osaba/ landatu naiz Euskal Herrian/ Mundu Marbarekin batera, / amaboreen modura emakumea izaki/ iritsi naiz sorginduz guztion lotura/ izan ziur borroka ta maitasunez/ laztantzeko izanen dugula aukera/ Osaba, zuk eta nik bai baitugu/ amets berbera. Irifarre maitagarri, zuen sorgintu. Ekiñe.



ZORIONAK OLATZ ETA HAIMAR



IMANOL GARCIA

JAI GIROAN MURGILDUTA

Asteazkenean izan ziren festetako txupinazoak, egitarau ofizialak eta herri borondatearen aldeko jaiak badute zer eskaini herritarrentzak igandera bitartean

EZINBESTEKO OSAGAIA: MUSIKA

Aste osoan izan dira musika emanaldiak jaietan; gaur berriz, Stupenda Jones, Silikonay, Izeba Pilarren Ilobak eta Trapatoni Circus Band taldeak izango dira



Silikonay taldea. SILIKONAY



Trapatoni Circus Band taldea. HITZA

Musika da, festa orotan, ezinbesteko osagaia. Aurten ere, bai Jai Ofizialeko egitarauan eta baita Herri Borondatearen Aldeko Jaietan ere, kontzertu sorta itzela dago entzungai.

Herri Borondatearen Aldeko Jaietara dagokienez, aste guztian izan dira musika emanaldiak; DJ Bull, Aran eta Esti edo DJ B.A.G., besteak beste. Atzo

gauean, Nuuk eta The Solanos taldeak igo ziren taulara.

Gaur gauean, berriz, Izeba Pilarren Ilobak herritarrek eta Trapatoni Circus Band taldea izango dira eszenatokian. Eta bihar, herriko disko jartzaileek alaituko dute gaua.

Egitarau ofizialean ere musika izan da protagonistetako bat. Aurreko egunetan, Basa-

jaun, Koldo Iparragirre edo Etxabe anaiak entzuteko parada izan da. Gaur gauean izango da, ordea, urtero egin ohi duten Rock kontzertua. Aurten, Silikonay eta Stupenda Jones taldeak entzuteko parada izango dute herritarrek. Kontzertua bukatzen denean, DJ Nestorren disko festak hartuko du lekukoa.

TALDEAK ▶

IZEBA PILARREN ILOBAK

Gaur 24:00etan, Herri Borondatearen Aldeko Jaietan. 2003ko azaroan elkartu ziren lehen aldiz anoetar hauek. Herri Borondatearen Aldeko Jaietan egin dute azken bi urteetan.

SILIKONAY

Gaur 23:00etan, Egitarau Ofiziala. 2002an sortu zen Zurbanoko (Araba) taldea, baina itxura 2003an hartu zuen taldeak. Txema eta Jokin gitarrajoleekin abiatu zen taldea (aurretik Kaos Etiliko edo Zein? taldeetako kideak). Dani baxujoleak eta Gorriz baterijoleak osatzen dute taldea.

TRAPATONI CIRCUS BAND

Gaur 24:00etan, Herri Borondatearen Aldeko Jaietan. 2001ean sortu zen lagun talde baten osatutako talde hau. Rock-a, ska, saltsa, bluesa edota jazz jorratzen ditu Elorriko taldeak. Zuzenekoak, alaiak eta dantzarako soinuk eskaintzen dituen kontzertua.

STUPENDA JONES

Gaur 23:00etan, Egitarau Ofiziala. Brigada Criminal taldearekin *Osti bi* diskoak kaleratu zuten 2004ean. Bonberenean grabatu zuten bi taldeek kalean den kantu sorta.

IZEBA PILARREN ILOBAK ▶ MUSIKA TALDEA

«HERRIAN JOTZEAK BESTE XARMA BAT DU»

Gaur izango dute kontzertua Izeba Pilarren Ilobak taldeko kideek Anoetan. Drogax, Adur, Luixa eta Gorka Herri Borondatearen Aldeko Jaietan, txosnaguneko taula gainera igoko dira 24:00etatik aurrera.

Nola sortu zenuten taldea? Orain dela urte eta erdi hasi ginen taldearekin. Guztiok genuen instrumenturen bat jotzeko gogoak, baina ez genekien, eta horrela elkartu ginen: Dro-

gaxek baxua jotzen ikasi zuten, Luixak bateria...Kuriosoa izan zen.

Nola doaz kontzertuak?

Orain urtebete, Gaztetzaren urtemugan eman genuen gure lehen kontzertua, eta orduz gerotik hamarren bat kontzertu eman ditugu. Eskualdean eman ditugu gehienak: Tolosan, Villabonan, Anoetan...

Zer sentitzen da herrian jotzean?

Herrian jotzeak beste xarma bat du. Beti ere, inguruko jendea aurrean duzula gehiago saiatzen zara. Orain arte gainera, beti Gaztetzaren jo dugu eta oraingoan txoznetan joko dugu.

Herri Borondatearen Aldeko Jaietan egin duzue azken bi urteetan. Zer diozue kantuetan?

Egin ditugun kantu guztietan gauzak salatzen ditugu, kritikoak gara zentzu horretan: zinegotzi lapurreta edota AHT salatu ditugu. Gizartearekiko kritikoak garen moduan, herriko egoerari ere kritika egiten diogu. Iaz atera genuen lehen kantua. Aurtengo kantuan, gu lauz gain, alboka eta



GARAZI AZKUE

soinua ere sartu ditugu kantuan. Beste urtebete pasa dela eta egoerak berdin jarraitzen duela salatu dugu.

Aurrera begira zer duzue pentsatuta?

Kantuek egiten eta kontzertuak eskaintzen jarraituko

dugu. Hurrengo ideia maketa bat grabatzea eta hori zabaltea izango da. Bere martxa jarraituko du eta aterako dira gauzak.

Zein litzateke jotzeko gustuko lekua?

Gaur joko dugun lekua: festa alternatiboetan, dantza egin ondoren. Oso berezia izango da herrian bertan eta egoera horretan jotzea.

Eta egingo duzuen hurrengo kantua?

Presoen aldeko kantu bat egin nahi dugu hurrena. ◀

ANOETAKO UDALA



Anoetako jai zoriontsuak opa dizkiegu herritar guztiei.
ZORIONAK!

Herriko plaza z/g
Tel.: 943 65 12 00
Faxa: 943 65 03 53
ANOETA

ondo pasa jaietan

Izarti
txokolategia

Sortalde, 1 • ANOETA • Tel.: 943 65 19 93

ITURGINZA

ZURIARRAIN

Tel.: 943 651465
mug.: 608676348
Benta Aldea indus, 6
ANOETA
FESTAK ONDO PASA!



GIZARTEA ▶

AHT-REN AURKAKO EUSKAL FESTA

Anoetako AHT gelditu! Elkarlanean taldeak azoka antolatu zuen pasa den igandean

Azoka, ikuskizunak eta festa giroa izan ziren pasa den igandean Anoetako kaleetan. Anoetako AHT gelditu! Elkarlanean plataformak ikuskizun biribila antolatu zuen herritarrentzat.

Batetik, herriko baserritarrek eta artisauak euren postuak jarri zituzten Igarabide kalean; bertan izan zen Otero pilotagilea artisauen artean, Azpiazu lorategiko kideak landaren eta loreak saltzen, eta baita Sarobe baserriko baserritarrak ere, euren produktu ekologikoak saltzen.

Beste alde batetik, baserriko lanabesen erakusketa izan zen ikusgai. Herriko hainbat baserri igaro zituzten plataformako kideek lanabes zaharrak biltzen. Mikel Larrion da plataformako kideetako bat eta haren esanetan, «erakus-

keta nahiko zabala izan zen, asko bildu genituen eta pieza bereziak egon ziren ikusgai».

Animaliak ere egon ziren jendaurrean ikusgai. Hegaztiak, behiak, idiak, astoak eta ardiak jarri zituzten azokan.

Herritarrek, bestetik, herri kirolelan hartu zuten parte, aizkoran edota sokatiran norgegiagokan.

Ikuskizun hauek guztiak sargardoarekin eta pintxoekin lagundu zituzten, taberna ireki baitzuten plataformako kideek. Trikitixa eta festa giroa ere ez ziren falta.

Antolatzaileek oso balorazio ona egin dute festa honen inguruan, «jendea oso gustura egon zen. Baserritarrek berriak ere asko saldu zutela aitortu zuten».

Elkartekideek sinadurak bildu zituzten AHT-ren aurka.



AHTren aurkako azoka, pasa den igandean. AHT GELDITU! ELKARLANEAN

HERRIKO ARTISTAK

Pirograbatuak, oleoak edo argazkiak ikusteko aukera dute anoetarrek herritarrei eskainitako erakusketan



Asteburu honetan ere irekita egongo da erakusketa. GARAZI AZKUE

Herriko artistei, euren lanak erakusgai jartzeko aukera jarri die Anoetako Udalak. Festen baitan, erakusketa antolatu dute, eta, pirograbatuak, oleoak, argazkiak eta egurra ikus daitezke udaletxeko aretoan.

Pasa den asteburuan inauguratu zuten obra sorta, eta, asteburu honetan ere, izango da ikusteko aukera.

Mariivi Iparragirre pirograbatuekin, Joxe Leon Larrarte egurrezko erloju eta beste objektuekin, Aimar Alonso hamalau urteko anoetarra olio eta bestelakoekin, Alejandro Gon-

zalez olioekin, Amalia Cabeza olioekin eta Luisma Nuñez argazkiekin dira erakusketako protagonistak.

Hala ere, badira herriko beste zenbait artista erakusketa honetan. Izan ere, herriko eskulanetako ikasleek ere jarri dituzte euren lanak erakusketa honetan; eta ez da lehen aldia.

Orokorrean artista guztiak daude «oso gustura», herrian lanak erakusteko aukera dutela eta.

Erakusketa 12:30etik 14:00-etara eta 18:30etik 20:30era egongo da irekita.

ARTISTAK ▶

JOXE LEON LARRARTE
EGURRA

«Poza eman dit erakusketan nire lanak jartzea, beti da berezia. Semeak askotan esan zidan kanpora ateratzeko, baina, hau da jarri dudan lehen erakusketa. Gehien gus-tatzen zaizkidanak jarri ditut bertan; herrian ezin jarriko nituen ba itsusienak!».

DOLORES GOROSTIDI
ESKULANETAKO IKASLEA

«Bi urte daramatzat ikastaroan eta pasa den urtean ere jarri genituen obrak udaletxean, martxoaren 8an. Pertxo-roak, ontziak edota bandejak jarri ditut erakusgai. Txukunen gelditu zaizkidan gauzak eraman ditut erakusketara».

AIMAR ALONSO
OLIOA

«Orain dela lau urte eraman nituen lehen aldiz pinturak erakusketara. Tolosara joaten naiz pintura ikastera eta aurretik ere nire lan bat jarri zuten Tolosan erakusketa batean. Lagunek oso ondo dardela esaten didate eta horrela jarraitzeko».

ABURUZA Erakuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

ITZULI

Taberna

Goizeko Setatik irekita

ONDO PASA JAIK!

San Juan plaza • 20270 ANOETA
Tel.: 943 653 403

Giauto

GIPUZKOA AUTOAK S.L.

ELGOIBAR • EIBAR • BERGARA
ARRASATE • OLABERRIA
Benta aldea Industrialdea z/g
Tel.: 943 65 00 49
ANOETA-TOLOSA

ANOETAKO
HERRI IKASTOLA

Festak
ondo pasa!

Euskadi
2005

Ergoien, 5 • Tel.: 943 65 29 32
anoeta@ikastola.net

GAZTEEN EGUNA

Kalejira, afaria eta dantza erakustaldia:
gazteen eguna iritsi da Anoetara



Gazteen Eguneko dantza saioa, iaz. GARAZI AZKUE

Gaur izango da, Herri Borondatearen Aldeko Jaien egitarauan Gazteen Eguna.

Orain urte asko hasi ziren Gazteen Eguneke jai hau antolatzen. Gaurkoan ere, 18:00-etan kalejirarekin hasiko dira herrian zehar, poteatuz. Herri afaria egingo dute ondoren eta afdalu ostean aterako dira dantza erakustaldia ematera herriko plazara.

Aurten ere 45 bat lagun bilduko dira dantza saiorako. Bertan parte hartuko dutenek diotenez, «daz baino gutxiago beharbada, azterketak suertatu baitira aurten tartean».

Dantza erakustaldirako bi hilabete lehenago hasten dira entseguak egiten, astean pare bat bider. Dantzariz jantzi eta kalera egiten dute.

Herri afarirako, ordea, dantzarako baino jende gehiago biltzen da eta aurten 100 lagun inguru bilduko dira mahaiaren bueltan.

EGITARAUA ▶ HERRI BORONDATEAREN ALDEKO JAIAK

GAUR

Gazteen Eguna.

18:00. Gazteen kalejira herrian zehar.
21:00. Herri afaria.
23:30. Gazteen dantza emanaldia herriko plazan.
24:00. Kontzertua: Izeba Pilarren Ilobak eta Trapatoni Circus Band.

BIHAR

17:00. Mus txapelketa.
18:30. Herriko musikariaren kontzertua.
21:00. Festen amaierako afaria.
23:00. Jon Plazaola umoristaren emanaldia. Ondoren musika, herriko Disko Jartzaileak.

EGITARAUA ▶ OFIZIALA

GAUR

11:00. Anoetako txistularien kalejira.
11:00. Xake txapelketa plazan.
15:30. Mus txapelketa herrikoentzako, Ateagak antolatutik.
17:30. Txokolate jatea, Ateaga elkarteak antolatutik.
18:00. Galtzaundik antolatuta, txobxongloak umeentzat.
19:00. Tolosaldea bailarako bakailoa saltsa berdean X. Lehiaketa, Ateaga elkarteak antolatutik.
20:30. Herri afaria frontoian.
23:00. Kontzertua: Silykonay eta Stupenda Jones.
02:30. Disko Festa: DJ Nestor.

BIHAR

11:00. Anoetako txistularien kalejira.
12:00. Pilota partidak pilotalekuan.
12:00. Sagardo dastaketa, sagardotan egositako txorizoarekin, Ateaga elkarteak antolatutik.
12:30. Meza nagusia, Landarbaso abesbatzarekin.
13:15-14:00. Landarbaso abesbatza elizan.
17:30. Herri kirolak plazan.
19:30. Villabonako Oinkari dantza taldearen *Garaiak aldatuz doaz* emanaldia plazan.
22:30. Irats musika taldea.
23:00. Zezen suzkoa. Ondoren Irats musika taldea.

LEHIAKETA ▶

JAIK SALTSAN

Gaur izango da, urtero bezala, bakailoa saltsa berdean lehiaketa

Gaur 19:00etan emango diote hasiera Tolosaldea bailarako Bakailoa Saltsa Berdean X. Lehiaketari.

Herriko Ateaga elkarteak antolatzen du urtero festetako ekintza hau. Hamabost parejak

hartzen dute parte lehiaketan, hori da jarri duten gehiengo kopurua; anoetarrak dira bartzuk, eta Tolosaldeko beste herrietakoak besteak. Partaideak inguruko elkarteetako kideak dira. Urtero betetzen dute ko-

puru hori; 15 partaide izaten dira, beraz, zeinek bakailoa hobe prestatu.

Miguel Otaño da Ateaga elkarteetako kideetako bat, eta lehiaketaren antolaketan lanetan ibiltzen dena. Haren esane-



Bakailoa lehiaketa. ALOÑA IPINTZA

tan, «kanpotik ere jende asko etortzen da parte hartzera».

Parte hartu behar duten elkarteetako ez dute ezer eraman behar arraina prestatzeko, antolatzaileek bereaiek jarriko baitute beharrezko guztia.

Iaz, Hernialdeko elkarteetako kideek irabazi zuten lehen saria. Berrobiko eta Irurako elkarteek ere gertutik jarraitu zieten.

Jakiak prestatu ondoren, plazan biltzen dira prestatutakoa probatzeko. Otañoren esanetan, «jende dezente biltzen da herriko plazan» lehiaketaren unean.

Gaur 19:00etan bilduko dira partaideak plazan.

Jaiak ondo pasal
Herriko plaza,9 • ANOETA • Tel.: 943 65 16 80

Maite janaridenda
Jaiak ondo pasa!
San Juan kalea, 8
ANOETA
Tel.: 943 65 20 37

DIESEL OPERAZIOA CITROËN-EN

CITROËN C4 HDI 14.260€tik 2.500€ ko aurrezpena	CITROËN C5 HDI 17.740€tik 4.800€ ko aurrezpena	CITROËN XSARA PICASSO HDI 13.450€tik 4.500€ ko aurrezpena	CITROËN C3 HDI 10.350€tik 2.800€ ko aurrezpena	CITROËN C2 HDI 9.570€tik 2.800€ ko aurrezpena
--	--	---	--	---

Etor zaitez ikustera: IROVI S.A Citroën Konzesionario Ofiziala
Anoetako Industrialdea z/g • 20270 ANOETA • Tel.: 943 65 18 42 • irovisa@citroenet-es.net

CITROËN